

GOBERNU BATZARRA

2017.11. 13

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hamahiruan, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Idazkaria:	1.- Aurreko akta onartzea.
Begoña Garmendia Vazquez	2.-lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 18/2017 eta 19/2017 faktura-zerrendak.
Kontuhartzaitza:	3.-Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuak, 2017ko ekitaldirako, Tolosaldeko merkatu arruntean kontratatzeke atera dituen diru-laguntzen oinarri erregulatzaileen onarpena.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	4.-2017ko enplegu programako administrari lanak egiteko lanpostua.
	5.-59/2017 eta 60/2017 faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko azaroaren 6an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 18/2017 eta 19/2017 faktura-zerrendak.

lurreamendi Egoitzak **18/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **13.522,94** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **18/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

.....

lurreamendi egoitzak **19/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **8.339,38** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **19/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

3.-Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuak, 2017ko ekitaldirako, Tolosaldeko merkatu arruntean kontratatzeko atera dituen diru-laguntzen oinarri erregulatzailleen onarpena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Diru-laguntzen deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2017ko uztailaren 26an egindako bilkuran (2017ko uztailaren 28an argitaratu zen EHAAn).

Tolosako Udalak 2017ko irailaren 15ean aurkeztu zuen Eskualdeko Enplegu-programako diru-laguntzen eskaera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

Tolosako Udalak azaroaren 2an jaso zuen laguntzaren ebazpena, hain zuzen, 281.839,37 euro, eta 106.839,37 euro bideratu zituen merkatu arrunteko kontrataziorako.

Tolosaldea Garatzen SA agentziak azaroaren 29an egingo duen Enplegunea 2017 azokaren bitartez, 21 lanpostu eskainiko zaizkie eskualdeko langabetuei enplegu-eskaintza publikoaren bidez.

Enpresek azaroaren 29ra arteko epea izango dute beren eskaerak aurkezteko.

Tokiko Gobernu Batzarrari, diru laguntza hauek arautuko dituzten oinarriak eta deialdia dokumentu bakar batean aurkeztu zaizkio.

Udaleko Idazkariak eta Kontuhartzaileak adierazi dute oinarrien onespina udalbatza plenoko eskuduntza dela, eta, aldiz, deialdia egitea, Tokiko Gobernu Batzarrarena.

Egoera honen aurrean, ondoko hausnarketa egin dute Tokiko gobernu Batzarreko kideek, labur bildurik:

- Lanbidek emandako diru laguntza jaso ahal izateko, enpresek langileekin kontratuak izenpetu behar dituztela abenduaren 31rako. Espedientean agertzen denaren arabera Lanbidek, bere laguntzaren emakida 2017ko azaroaren 10ean jakinarazi dio udal honi.
- Azaroaren 29an Tolosan egingo da *Enplegu Azokak*, eta ekitaldi honek eskaintzen duen markoa aprobetxatu egin behar dela lan-eskaerak eta eskaintzak bideratzeko, bertan elkartzen direlako interesa duten sektore guztiek.
- Diru laguntzak jasotzeko eskaerak aipatu epearen bitartean, eta batez ere, *Enplegu Azokan* aurkezten direla.
- Deialdia ez balitz martxan jarriko, Lanbidek onarturiko laguntza galtzeko arriskua egongo litzateke.

Arrazoi hauek kontutan hartuta, Tokiko gobernu Batzarrek erabaki du diru laguntzak jasotzeko deialdiarekin jarraitzea, eta, aldi berean, oinarriak onartzeko legezko izapidetzeari hasiera ematea, dagokion organoaren aurrean.

Halaber, Enplegu Zerbitzuak eta udal Idazkari eta Kontuhartzaileak deialdia aztertuko dute, indarrean dagoen legeriarekin bat etor dadin.

Hori dela eta, Enplegu teknikariak eta udaleko zerbitzu juridiko eta ekonomikoek egin duten proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Aurkeztutako programaren deialdia onartzea, Udal Idazkariak eta Kontuhartzaileak adierazitako aldaketekin. Aldaketa horien berri emango da datorren Batzarrean.

Deialdiari premiazko bidea ematea, Lanbidek udal honi egin dion erabakiaren jakinarazpena eta lan kontratuak gauzatzeko epea kontutan hartuta.

BIGARRENA.- Programa indarrean sartzeari argitaratu eta hurrengo egunetik, bere garapena ez kaltetzeko helburuarekin.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Enplegu Departamentuari.

4.- 2017ko enplegu programako administrari lanak egiteko lanpostua.

Gaia bertan behera gelditu da, datorren bilkurarako. Hain zuzen, honako hauek argitu behar dira:

- Lanpostuaren zereginak
- Udal baliabideen gabezia

- Langilearen profila
- Izendapena/Kontratazioaren ezaugarriak

5.- 59/2017 eta 60/2017 faktura-errendak.

Kontuhartzaitzak **59/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **1.198,70 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **59/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **60/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **357.794,36 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **60/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA